

# Olentzero


Olentzero joan zaigu mendira lanera intentziuarekin ikatza egitera.

Horra, horra, gure Olentzero pipa hortzetan duela eserita dago. Kapoiak ere baitu arraultzatxuekin bihar merendatzeko botila arduakin.

Olentzero buru handia entendimentuz jantzia bart arratsean edan omen du hamar arruko zahagia! Ai urde tripa handia, laralalala laralalala ai, urde tripa handia, laralalala laralala Horra, horra, gure Olentzero

# Alaken

Alaken, alaken, ala pikula tun paire, errespundela pikula tunpa Jesus Maria jaioa zen. (bis) Adiskideok! Ikusi duzue zelai horietan artzaina, artzain txiki, artzain handi, artzain mutur leuna. Alaken, alaken...



# Elurra teilatuan

Elurra teilatuan zakua lepoan ibili beharko dugu aurtengo neguan. Riau, riau, riau rakataplau... Hau duk umorea utzi alde batera euskaldun jendea. Riau, riau, riau rakataplau... Hau duk umorea utzi alde batera euskaldun jendea




# Kas kas atean

Kas, kas, kas atean Nor dabil etxean? Ikusi makusi Nor naizen ikasi Praka zabalak Atorra urdina Ai ene! ez dakit ezer ez, ez, ez Ai ene! Kontatu mesedez. Mutur zikina, Txapela beltza. Ai ene! ez dakit ezer ez, ez, ez Ai ene! Kontatu mesedez. Pipa ahoan Ardoan bertan Bai, bai, bai, lehen orain eta gero Zu zara gure Olentzero.



# Hator hator

Hator, hator mutil (LAGUN) etxera, gaztainak zimelak jatera, Gabon gaba ospatuzeko aitaren ta amaren ondoan. Ikusiko duk aita barrezka, amaren poz atseginez. Eragiok mutil (LAGUN) aurreko danbolinari, gaztainak erre artian, gaztainak erre artian, txipli, txapla pun. Gabon gaba pozik igaro daigun.



Izena: \_\_\_\_\_